

## **ERRENTERIA / Liburutegia goizez bakarrik irekiko dute uztaila eta abuztuan**

Udako ordutegia martxan jarri dute dagoeneko udal liburutegian, eta hala, uztaila eta abuztuan goizez bakarrik egongo da irekita. Salbuespen bakarra madalenetan egingo dute, hilaren 22tik 26ra itxita egongo baitira biak.

Horrez gain, helduen liburutegia itxi egingo dute ere abuztuan egun batzueta rako: abuztuaren 12tik 16ra. Haurrena, berriz, hilabete osoan egongo da itxita.

Helduen liburutegiaren ordutegia honakoa da: 08:00etatik 14:30era. Haurrena, berriz, beranduago irekitzen dute, 10:30ean. 14:30era arte dago zabalik.

### **Maileguak**

Bi sailetan maileguak egiteko baldintzak aldatu egingo dituzte udako ordutegian. Bazkide txartel bakoitzak sei liburu hartu ahal izango ditu hilabete baterako, beti ere aurretik eskatuta. Haurren, kasuan, berriz, abuztu osoan itxita egongo denez, helduen liburutegian mailegu sorta bat jarriko dute eurek ere irakurri ahal izateko.